

## GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEAREN BALDINTZA ETA MUGA ESPEZIFIKOAK IKASLEEK NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNERAKO PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO (ERASMUS+, LATINOAMERIKA ETA BESTE NORAKO BATZUK)

1. Ikasleak unibertsitateko mugikortasun programei buruzko arautegia ezagutu beharko du eta, Fakultateko mugikortasun koordinatzaileen aholkularitzaz, atzerriko unibertsitatearen ikasketa planei, eskakizunei eta baldintzei buruz informatu beharko da.
2. Atzerriko erakundeetan egin beharko dituzten UPV/EHU egiten dabiren titulazio ofizialeko programaren partetzat aitortuko zaizkion ikasketak.
3. Eskaria egitean, gutxienez, graduako bigarren urtean egon beharko da matrikulatuta.
4. Ikaslea, normalki, kreditu kopuru jakin batean egon beharko da matrikulatuta UPV/EHU, eta kopuru hori egin beharko du atzerriko unibertsitatean:
  - a. lauhileko bateko egonaldietarako, 30 kreditu gutxienez.
  - b. ikasturte osoko egonaldietarako, 60 kreditu gutxienez.
5. "Latinoamerika" eta "Beste norako batzuk" programetan parte hartzen duen ikasleak kontuan hartu beharko du zein den UPV/EHUko eta atzerriko unibertsitateko kredituen arteko baliokidetzak, eta, edozein kasutan, 30 edo 60 ECTS kredituren parekoa egin beharko du, egonaldiaren iraupenaren arabera.
6. Mugikortasuna graduako 4. mailan burutuko duten ikasleek, lauhileko bateko egonaldiak baino ezin izango dituzte eskatu. Horiek lehen lauhilekoan egingo dira beti, eta ezin izango da egonaldia luzatu. Bestalde, ikasleak ezin izango dituzte hitzarmen akademikoan Gradu Amaierako Laneko kredituak sartu.
7. Atzerriko unibertsitateko hizkuntza frantsesa edo alemana bada, gutxienez B1 maila edo parekoa eskatuko da, edo unibertsitate horrek berak eskatzen duena. Ingelesez irakasten den lekuetarako, eskatuko den gutxienerako maila B2 edo parekoa izango da.
8. Hitzarmen akademikoan egonaldia egingo den ikasturteko UPV/EHUko irakasgaiak baino ezin daitezke sartu. Era berean, ezin izango dira sartu "nahikoa", "suspentso" edo "aurkezteke" kalifikazioa jaso duten irakasgaiak. Helmugako unibertsitateko lehen mailako irakasgaiak ez dira konbalidatuko Mugikortasun Dekanordearen baimen bereziarekin ez bada. Hitzarmen akademikoak Mugikortasun Dekanordearen onespenez izan beharko du betiere. Hitzarmenean zerbait aldatzen bada dekanordeak aurretik baimena eman barik, aldatutako irakasgaiak ez dira konbalidatuko.
9. Nazioarteko mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleek gogobetetze inkesta bete beharko dute atzerrian dauden bitartean. Ezin izango dute itzuli ondoren bete.
10. Mugikortasun programetan **parte hartu ahal izateko**, ikasleak, deialdiaren aukeraketa egiten den unean, bere espediente akademikoan batezbesteko nota 6,50 izan beharko du. Salbuespen moduan, aurretik Buddy programan egoki parte hartu duen ikasleari 6,00ko batezbesteko nota onartu ahal izango zaio.
11. , **Esleitzerako momentuan**, nota minimo hori duen ikasleari, merituengatik beste puntu bat gehitu ahal izango zaio, hau da, aurreko deialdietan Buddy edo/eta Ikaskide programan parte duenari (0,5 programa bakoitzeko). Batuketan hori fakultateak kudeatzen dituen norakoei soilik aplikatu ahal zaio.
12. Era berean, ikasleak bete beharko dituzten Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak ezartzen dituen baldintzak eta eskakizunak.